


# INFO

## Irakaskuntza Heziketa Berezia



 <https://irakaskuntza.lab.eus/>

 **Araba:** 648735679  
heziketabereziaaraba@lab.eus  
**Bizkaia:** 666778152 / 666771867  
heziketaberezia@lab.eus  
heziketabereziabizkaia@lab.eus  
**Gipuzkoa:** 666775703  
heziketabereziagipuzkoa@lab.eus

## Esleipenen mahai parekidea Ordezkoen esleipena (COCU) atzeratuko da.

Gaur, ekainak 7, esleipenen inguruko mahai parekidea izan dugu.

Alde batetik, **ikastetxeen esleipen** prozesuaren gora beherak aipatu dira. LABetik ikastetxeko esleipenen arautegia fintzeko proposamenak bidaliko ditugula adierazi dugu. Besteak beste, adostasun bilerek, lanpostu egokitzapenek eta erretiro kontratuek prozesu honetan duten eragina hobeto arautu behar da.

Bestaldetik, **ordezkoen esleipenaren** inguruan aritu gara. Ordezkoen esleipena (COCU) atzeratuko dela baieztatu digute gaurkoan. Beraz, ordezkoen esleipena ez da ekainaren 10ean hasiko. Oraindik ez daude data berriak finkatuta. LABetik atzerapenaren berria web gunean eta sms bidez ordezkoen jakinaraztea eskatu dugu.

**Adinagatiko murrizketari** buruz ere aritu gara. Adinagatiko murrizketagatik ekainean egin diren **ordezkapen kontratuak** ez dira ikasturte amaieran etengo. Titularrak datorren ikasturtean murrizketarekin jarraituz gero, ordezkapenak jarraituko du. Hala ere, LABetik arautegia betetzea eskatu dugu eta ordezko hauei ere, ordezkoen esleipenetan (COCU) parte hartzeko uko egiteko aukera daukatela jakinaraztea.

Gogorarazten dizuegu **ordezkapen kontratuei uko** egiteko azken egunean, hau da, maiatzaren 6an, kontratuean ez zeuden ordezkoek beraien kontratuari uko egiteko aukera izango dutela ordezkoen esleipenetan (COCU) parte hartzeko.

**Lan hitzarmen berriari** dagokionean, datorren egunetan mahai negoziatzailearen deialdia egingo dute. Bertan, lan hitzarmen berriaren proposamen osoa egongo dela esan digute.

Lan hitzarmen honetarako LABen lehentasunak [lotura honetan](#) uzten dizkizuegu.

Azken egunera arte LABeko kideok heziketa bereziaren aitortzan tinko eutsiko diogu! Lortuko dugu!



Banatu ez eraldatu!

